



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

6 | 2001
Numéro VI

Joannes Etxeberriren Eliçara erabiltceco liburua-z

Isaac Atutxa



Édition électronique

URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/1188>

DOI : 10.4000/lapurdum.1188

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 octobre 2001

Pagination : 21-61

ISBN : 2-84127-156-0

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Isaac Atutxa, « Joannes Etxeberriren Eliçara erabiltceco liburua-z », *Lapurdum* [Linean], 6 | 2001,
Sarean emana---an 01 juin 2009, kontsultatu 21 avril 2019. URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/1188> ; DOI : 10.4000/lapurdum.1188

Atutxa I. | IKER

Isaak Atutxa

Joannes Etxeberriren *Eliçara erabiltceco liburua-z*

0. Atarikoak

Jarraiko lerroetan Joannes Etxeberri Ziburukoak idatzi eta gurera heldu den liburuetakoa baten aurkezpena egin nahi izan dugu. Liburu hau *Eliçara erabiltceco liburua* da eta idazle honek idatzi eta argitaratu direnetan hirugarrena dugu.¹

Mendeetan zehar, hiru lekukotasun desberdin eman ahal izanagatik, guk bi baizik ezin izan ditugu aztertu, 1665.ekoa eta hurrengo urtekoa, 1666.ekoa.

Lantxo hau hiru atal nagusitan banatu dugu. Lehenean, lekukotasun desberdinen araketa sakona egiten da. Nahaste haundia izan da itxura guztien arabera hiru argitarapen desberdin behintzat izan baitirelako. Guk aurkitu ditugun lekukotasun hauen ale desberdin guztiak aztertu eta lortutako emaitzak eskaintzen ditugu.² Bigarren atalean, eskuartearen ditugun bi lekukotasunen erkaketari ekin diogu lekukotasun desberdinon filiazioa lortu nahian. Hirugarren atalean, azkenik, eta liburuaren lekukotasun desberdinak inprimatu ziren garaiak aintzat harturik, liburuak argia ikus zezanerako jarraitu behar zuen ibilbidea gogoan izaki, zenbait bitxikeria bibliografikoz aritu gara, liburuaren beraren egituraketari buruzkoa esaterako.

¹ Joannes Etxeberri Ziburukoaren hiru liburu inprimatu eman zaizkigu : *Noelae* bigarrena eta gaur mintzagai dugun hau hirugarrena.

Hiru liburuon xehetasun gehiago nahi duenak jo beza, esaterako, Vinsonen *Essai...* ra (1891-8), Patxi Altunaren *Manual devotioenezcoaren* edizio kritikora (1981) edo I. Atutxaren *Noelae*-i buruzko artikulura (1999) edo doktorego tesira.

² Edozein testukritika liburutakoari jarraiki (guk J. Lakarraren "Testukritikaz : I. Stemmarantz" (1988) eta A. Blecuaren *Manual de crítica textual* (1988) lanak ditugu lagungarri), recensioaren *fontes criticae* fasean geundeke. Izan ere, fase honetan «argitaratzaileak iturri guztiak behar ditu eza-gutu eta erabili bere lanean... Iturriez kanpo, argitaratzaileak ezin izango ditu ahaztu delako obra horren aurreko edizioak (baldin badira) edota hari buruzko ikerketak, bereziki testuari buruzkoak izaki (Lakarra, aip. lan. : 119).

1. *Eliçara*-ren lekukotasun desberdinak

1.1. *Zuzeneko tradizioa*³

Hau da gugana heldu den Etxeberri Ziburukoaren hirugarren eta azken liburua.

Jusef Egiategi eta Aita Larramendik ez dute beren lanetan aipatzen (ezagutzen ez omen zutelako?). Badute, haatik, J. C. Adelung eta J. S. Vater-ek aipamenik. Izan ere, honela diote *Mithridates* liburuan (1809 : 23) : “*Elicaria* (sic) *Erabiltececo Liburia (Biscaya)*. Pau in Bearn, 1666, 24”.⁴

Behin, L.L. Bonaparteren Eskuizkribuak-Argitarapenak liburua (1989) arakutzen geundela, hurrengo bi aipamenok irakurtzeko aukera izan genuen :

352. UN PATRIOTE. Recueil des quelques Eclaircissemens Relatifs au paiss et peuple Basque. Par... Dedié a son Altesse Le Price Napoleon. Bayonne le 24 Février 1866.

Cuaderno, 41 hoj., 23,5 cm. MICROFILM 2 C 27

Proc. : ADN m/s B-95

352bis. (NOTA bibliográfica sobre Joanes Etxeberri).

2 hoj., 27 cm.

Proc. : ADN m/s B-105.MICROFILM 2 C 27

Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekako Bonaparte Printzearen eskuizkribuen mikrofilmetan bilatu eta han aurkitu genuen, UN PATRIOTE honen 41 orrien ondoren, Joannes Etxeberri Ziburukoaren *Noelac* eta *Eliçara erabiltececo liburuaren* aipamen bibliografikoz osatutako bi orri. Lehen orriak *Noelacen* hiru argitarapen desberdinen berri daukagu. Bigarreanean, *Eliçararen* lekukotasun bati buruzko xehetasun hauek ditugu :

³ Joseba Lakarrak dioenez (1988 : 120) “testua gureganaino irits dakiguke a) zuzenean edo zeharka. b) eskuizkribuz edo inprimaturik eta c) lekukotasun bakarrean edo gehiagotan”.

⁴ Badu F. Michelek ere liburu honen aipamenik bere *Proverbes basques*-en. Hona dioen : “XVI. L’année suivante (1666.a), parut à Pau un volume in-24, sous le titre d’*Eliçan erabiltececo liburia* (Livre qu’on doit porter dans l’église); nous ne le connaissons que par la citation fautive qu’en fait le *Mithridates*.”

Eliçara erabilteco liburua, Ioannes Etcheberri Dotor theologoac eguiña. Eta Iaun Noble Bertrand de Etchhaus Toursco archipizpicu Digneari dedicatua.

Bigarren aldian imprimatua.

Paven Ioannes Desbaratz Erregueren imprimatçaillea baithan 1666.

pag., titre non compris 1 à 506 et avec la table 517. au revers de la page du la table _____ fin se trouve : Iesusen Compagniac aita batec D'etcheverry doctor cenaren adisqueideac marinelen favoretan arrats guttuez eguin behar examena. _____ : Aita harc berac Jesus Christori gurutcearen aiticinean contricionezco orationea. - ces deux morceaux, en vers, ne sont point paginés ; ils occupent 11 pages en sorte que le total, sans le frontispice et le revers du frontispice est de 1 à 528. ____ L'approbation, en latin, est donnée à Sare de 22 mai 1635 et signée P. de Atchular curé de Sare, P. de Guillentena curé D'Itsatsu. Ce qui _____ une distance de 31 ans entre la 1^{re} et la 2^e édition, et l'auteur était mort en 1666.

174 mana — 202 JEcen — 226 Haren — 266 Ecen — 304 Içatu — 326 Guinenean — 348 ikhisteco — 376 arren.

Pertsona honen ustez, lehen argitarapenetik bigarrenera 31 urte igaro dira, bitartean Etcheberri bera ere hil egin zaigularik. Ez da, haatik, ohartu 1665.eko argitarapenaz, ezezaguna zaiolako ziurren. Honek Joanes Desbaratz inprimatzaileari ere ez ote zitzaion gauza bera gertatu pentsarazi digu.

1.1.1. 1636. urteko lekukotasuna

Vinsonen sailkapenaren arabera hiru argitarapen desberdin ezagutu izan ditu liburu honek mendeetan zehar. Hona hemen balizko lehen argitarapenaren aipamen bibliografikoa (1891-8 : 76) :

“17a.- Eliçara erabilteco liburua Ioannes Etcheberri Dotor Theologoac eguiña eta iaun Noble Bertrano de Etchhaus Tursco Aphezpicu digneari dedicatua. *Bordelen*, Guillen Millanges Erregueren imprimatçaillea baithan 1636.”

Vinsonek dioenez, aipamen hau M. Pierquin de Gembloux-ek egiten du bere *Histoire littéraire* liburuan, baina berak zalantzatan jartzen du Pierquin honen lana “insuffisant, désordonné et inexact” delako.

Hau da, izan ere, Pierquin de Gembloux jaunaren aipamena :

“Etcheberri Joannes, Eliçara erabilceco liburna, etc., in-18, Bordelen Guillen Milanges Erzegueren, imprimatcaillea baith an 1636, p. 542”. (1958a : 264). Gehigarrietan ere aipamen berbera dugu. Eta bai, baliteke Pierquin-en lana “insuffisant, désordonné et inexact” izatea; baina, dirudienez, begibistan izan du argitarapen hau. Bere neurria (in-18) eta bere orrialde kopurua (542) ere ematen dizkigu. Eta ezagutzen diren beste bi argitarapenak ez datoz bat bi datu hauekin. Baliteke, bestalde, Pierquin de Gembloux berak ere beste non-baiten jaso izana datuok.

Urkixo jauna ere ezagun diren bi argitarapenez landako beste hirugarren baten aldeko zen. Berak Joanes Etcheberri Sarakoaren eskuizkribuak aurkitu Zarautzen frantziskotarren komentuan eta argitara eman zituen 1907.ean. Denak ditugu *Las obras bascongadas del doctor labortano Joanes Etcheberri* izenburua duen liburuan bilduak. Hona hemen Urkixoren ustea (1907 : 149-150) :

El autor de *Hatsapenac* cita constantemente a Etch., abreviatura evidente de Etcheberri, sin darnos ningún detalle que nos indique el libro o libros a que se refiere. He podido sin embargo comprobar que todas las *formas verbales* que el Doctor de Sara atribuye a su homónimo de Ziburu, se encuentran en la siguiente obra, que me ha sido confiada por el entusiasta vascofilo M. Hiriart, Bibliotecario de la villa de Bayona : ELICARA | ERABILCECO | LIBURVA. | IOANNES ETCHEBERRI | Dotor Theologoac | eguiña. | Eta iaun Noble BERTRANO | DE ETCHAVS *Turfee.* | *Archiphizpicu* dignea- | ri dedicatua. | (floron) | BORDELEN, | I. MONGIRON MILANGES, | Erregucren Imprimat- | çaillea baithan. 1665. |

Este libro se imprimió por primera vez en 1636 y se reimprimió en 1665 y en 1666 : M. Julien Vinson declara no haber visto mas que la segunda y tercera de estas ediciones ; y reproduce, *sous toute réserve*, las indicaciones de M. Pierquin de Gembloux (*Histoire littéraire*), acerca de la de 1636.

Los *Rudimentos* nos prueban no obstante, que además de las dos ediciones conocidas, existió otra tercera, de la que tomó sus citas Joannes de Etcheberri ; por lo que no parece aventurado asegurar que la afirmación de M. Pierquin de Gembloux es exacta.

En efecto : el Doctor labortano no se sirvió de la edición de 1665, que tengo a la vista ; ni de la de 1666, según puede verse por la carta que transcribo a continuación, de la que se deduce que la paginación dada por el manuscrito no corresponde a la del ejemplar del ELIÇARA, que se conserva en el British Museum : es pues evidente que existió, por lo menos, una edición de este libro que no ha llegado hasta nosotros.

DEPARTMENT OF PRINTED BOOKS,
BRITISH MUSEUM,
LONDON : W. C.

Monsieur Julio de Urquijo,
Saint-Jean-de-Luz.

Dear sir :

In answer to your enquiry I send you on the other side the information required.

Yours faithfully
W. R. WILSON,
Acting Keeper.

Press Mark 1064 a. 32

iracats albaitioco

p. 51 not 52.

içan dadin

p. 51 not 52.

daitecen (not daitcen)

p. 59 not 60.

alhaiteça (not albaiteca)

p. 103 not 104.

Ukaezina da, bada, orrialde batetako desoreka edo aldea dagoela *Hatsapenac*-eko eta 1666.eko edizioaren arteko aipamen hauetan.

Pentsa zitekeen, haatik, alde hau Joanes Etxeberri Sarakoak 1666.eko edizioan falta diren 3-4 orrialde zenbakiak kontuan izan eta horren ondorena izatea (baina orduan aldea 2 orrialdetakoa dateke, ez batekoa), argi erakusten baitzaigu lau adibideotan edizio batetik besterako aldea orri bakarrekoa dela.

Izan dugu *Eliçara erabiltceco liburua*-ren bi edizio ezagunak (1665 eta 1666.ekoak) eta *Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* liburuan Joanes Etxeberri Sarakoak ezarri dituen *Eliçara*-tik hartutako aipamenak aztertzeko aukera eta argi ikusi dugu Sarako midikuaren aipamenok zuzenak badira (eta ez dugu bestetara pentsatzeko arrazoirik) zilegi dirudiela, *Eliçara erabiltceco liburua*-ren bi ezagunez gain, 1636.eko (Pierquin de Gemblouxek defendatzen zuenez) edo beste urte batetako argitarapena ere izan dela aitortzea.

Jarraian konparaketa horren emaitzak eskainiko dizkigu, bost zutabetan bananduak. Lehenean, Etxeberri Sarakoak *Eliçara*-tik hartu duen adibidea dugu; bigarrenean, hirugarrenean eta laugarrenean 1665, 1666 eta Etxeberri Sarakoaren beraren liburuan adibide hori agertzen den orrialde zenbakia; bosgarrenean, azkenik, J. Urkixok Etxeberri Sarakoaren lanak bildu dituen *Las obras bascongadas* liburuaren orrialde zenbakia. Hona hemen datuok :

<i>hitza</i>	<i>1665.eko argitarapena</i>	<i>1666.eko argitarapena</i>	<i>Escuarazco hatsapenac</i>	<i>Las obras bascongadas</i>
aicen	43	51	51	149
içan dadin	43	51	52	150
daitecen	50	59	60	150
çu çaude	40	47	48	155
çaitugu	81	97 ⁵	98	169
gaitutçun	84	101	102	170
albaiteça	85	103	104	171
naçaçu	63	75 ⁶	76	171
çaquec	87	105	107	171
çaquec	116	141	143	171-172
naçaçue	76	91 ⁷	92	172
çaitçadan	52	62	63	172
Ezteçaçuela	63	75	76	172
naicen	63	75	76	177
albaitioço	43, 114	51, 137	52, 141	182
diotçotçu	138	165-6	171	192
adi çaçü	41	48	48	199-200
gaitçatçu	40	47	47	200
albaiteça	104	125-126	129	200
albaitetça	107	129	132	200
Eguioquec	42	50	50	253
Eguidaçü	48	57	58	253
Eguitcic	107	129	132	253
eguiguçu	56	67	67	253
darouedaçun	71	85	85	269
Eguiuedaçü	58	68	69	269
Eguidaçü, eguiocu	52	61	62	269
eguiocu	57	67	67	269
eguiocu	66	79	86	269
eguiocu	75	89-90	93	269
Erroqueec	45	52-53	50	270

⁵ Julio Urkixok 87 jarri duen arren (1907 : 169). zerbaki zuzena 97 da.

⁶ Oraingoan ere, gaizki jarri du J. Urkixok zenbakia : 75 jarri beharrean 71 dager.

⁷ Berriro, 83 jarri du 91 jarri beharrean.

Badago, bestalde, desberdintasun bat Urkixo jaunak aldarazi zituen bertsoak eta *Elicara erabiltceco liburua*-n datozenen artean. Ahapaldiko bigarren bertsoan, 'Bide chigor meharrean' agertzen den bitartean, Julio Urkixok 'Har chigor meharrean' ezarri du.

Erraqueçu	49	56	54	270
Erratçu	50-51	58	60	270
Erracitçu	43	51	50	270
Eguiguçu	56, 109	67, 131	67, 134	270
Eguiguçu	84	101-102	102	270
Eguioçue	78	94	95	270
Eguic	116	139-140	138	270
Erratçu	50	60	60	272
Erracitçu	43	49	50	272
Erraqueçu	45	53	54	272
erroqueoc	42	50	50	272
Erratciquetçu	70	83	84	272
Erracitçu	42	49	50	273

Argi erakusten zaigu bost zutabeotan zehar, liburuan aurrera egin ahala, orri bateko diferentzia areagotu (hiru-lau orrialdetako aldera helduz) edo laburtu egiten dela eta orrialde zenbakien arteko desberdintasuna ez dagokiofala, beraz, *Eliçara*-ko 3-4 orrialde zenbakien faltaren eraginari. Badirudi, bada, Etxeberri Sarakoak gurera heldu ez den *Eliçara erabiltceco liburua*-ren argitarapen desberdin bat erabiltzeko aukera izan zuela. Are, pentsa liteke, 1666kotik gertuen izaki, urte honetakotan oinarri zitekeela berankorragoren bat.

1.1.2. 1665. urteko lekukotasuna

Irakurri ahal izan dugun bibliografiak, lagundu beharrean, kasu honetan, nahastu egin gaituela esan behar dugu. Beti bezala, J. Vinson hartu dut abiapuntu eta bere *Essai...* -n irakurria da jarraian azaldu nahi duguna. Hau da *Eliçara erabiltceco liburua*-ren bigarren argitarapen honen lehen aipamena (1891-8 : 77) :

“17b.- ELICARA | ERABILTCECO | LIBRVA. | IOANNES
ETCHEBERRI | Dotor Theologoac | eguiña. | *Eta iam Nobis BERTRAND*
I DE ETCHAVS Turfce, I Archiphizpicu dignea- I ri dedicatua. I (fleu-
ron) I BORDELEN, I L. MONGIRON MILANGES, I Erregueren Imprimat-
çaillebaithan. 1665.

Pet. in-8 — (lxvj)-435 p.; signatures : aux fts préliminaires de un à six pieds de loup; pus A p.l, B p. 16 <17>, C p. 25, D p. 41, E p. 49, etc.

— Le texte mesure 86 mm de hauteur sur 42 de justification.

Je connais trois exemplaires de cette édition, dont un complet. Un des deux autres est à la Bibliothèque municipale de Bayonne (n° 3822).

Coll. : p. (i-ij) titre, (iij-vj) dédicace, (vij) approbations de MM. Guillentenea et Axular (Sare, 16 mai 166 (*sic*), (viiij-ix)) vers latins à l'éloge de l'auteur signé d'*Iharce*, (x-xiv) vers français, signés *Casabielhe*, (xv) vers basques signés *J. Claverie*, (xvj) vers : *harc berac <hari> berari*, (xvij-xviiij) vers de *Tristand de Apezte*, (xix) vers : *harc berac <hari> berari*, (xx) division du livre, (xxij-xl) *calendarioaz eta demboren contuaz* "du calendrier et du compte du temps", (xlj-xlv) tableaux de l'épacte, de la lettre dominicale et des fêtes mobiles de 1665 à 1683, (xlvj-lxvj) calendrier; — p. 1-82<4>, première partie (devoirs du chrétien), premier traité (prières quotidiennes, en vers); p. 82<5>-134, deuxième traité (doctrine chrétienne, en vers); p. 135-166, troisième traité (de la confession, en prose); p. 167-423, deuxième partie (heures, en vers; les psaumes de la pénitence sont aux p. 316 et suiv.; aux p. 368 à 423 est la dévotion à Marie); p. 425-435, table.

<Commencement des p. 81 Duçun othoi, 192 7. Hargatic, 273 Eta Ifraelen, 346 Bartholome, 403 3. Laurguitu.>"

<> artean jarri ditugu J. Vinsonen beraren zuzenketa eta gehiketak, hain zuzen ere bere *Essai...* -ren bigarren alean jarri dituenak (aip. lan. : 544). Zuzenketa eta gehiketon artean, honako aipamen berri hau jarri du :

"17 b, c — ELIÇARA, etc.

Edition conforme à la précédente, sauf ce qui suit :

Pet. in-12 — (lxvij) - 435 p.

P. (vij) approbations de P. de Archular, P. de Guillantena (22 de mai 166 (*sic*), (viiij-ix)) vers latins signés "*I. Ihartius in Curia Baionenfi caufarum Patrunus*", (x-xiv) vers français, signés : *I. D. Casabielhe*, s^r de Chabatenea, de Saint-Jean-de-Luz; (xv) vers basques signés : *Jean Claverie, Apezac*; ... (xvij-xviiij) vers de *Tristan de Apezte, Apphesac*; ... (xx-xxi) division du livre; (xxij-xxxix) *Calendarioaz*, etc.; (xl) blanc; (xli-xliiii) tableaux de 1665 à 1683; (xliv-lxvij) calendrier; (lxvij) blanc; — 1-82 première partie, premier traité, 83-135 deuxième traité; 135-166 troisième traité; 167-423 deuxième partie (ps. de la pénitence aux p. 316-344, la dévotion à Marie aux p. 368-423); 425-435 table.

Le texte a une justification de 42^{mm} sur 98 de hauteur (chiffres et signatures compris).

Erreurs de pagination : 117 pour 107, 30 pour 130, 178 pour 187, 303 pour 203, 149 pour 249, 369 pour 359, 374 pour 363.

Commencement des p. 81 Duçun othoi, 192 7. Hargatic, 273 Eta Ifraelen, 346 Bartholome, 403 3. Laurguitu.

Signatures : préliminaires : un à six pieds de loup aux p. i. xvij. xxv, xlj; — A p. 5, B p. 21, C p. 29, D p. 45, etc., jusqu'à Mm (demi-feuille contenant les quatre derniers feuillets de la table).

Sur quatre exempl. de cet ouvrage et de cette édition que j'ai eus entre les mains, deux avaient à la p. 220 la réclame *harran* en petit texte; les deux autres avaient *hartan* en texte ordinaire. A part cela, les quatre volumes étaient identiques."

Bibliografia irakurri eta eman genuen hurrengo pausua iturrietarako izan zen. Baionako Museoa, urte honetako ale bat izan zitekeelakoan, hara jo eta argitarapen honen ale baten fotokopiak lortu ahal izan genituen. Handik lasterrera, Baionako lankide dugun Txarles Bidegain etorri zitzaigun han liburuarekin batera dagoen eskuizkribu baten berri eman ez. Eskuizkribuak honela dio :

Comparación de las dos ediciones de 1665 de "Eliçara erabilteco liburua" de Joanes Etcheberri :

<p>T. I, p. 77, n° 17a -petit in-8° -págs. (lxvj)-435 -mesure texte : 86 mm x 42 mm</p> <p>- "Je connais 3 exemplaires de cette edition, dont 1 complet. Un des 2 autres est à la Bibl. Mun. de Bayonne (n° 3822)</p>	<p>T. II, p. 544, n° 17bc -petit in-12 -págs. (lxvij)-435 -mesure texte : 98 mm x 42 mm (chiffres compris)</p> <p>- "Sur 4 exemplaire de cet ouvrage et de cette édition que j'ai eues entre les mains, 2 avaient a la p. 220 la réclame "harran" en petit texte; les deux autres avaient "hartan" en texte ordinaire.</p>
--	--

-pp. (iij-vj) dedicase signée : "Joanes Etcheberri, dotor theologo ciburutarrac."	-approbations p. (vij). "22 mai 166 (sic)"
-approbations p. (vij) : "16 mai 166 (sic)"	
-pp. (x-xiv) vers français signés : "Casabielhe"	-pp. (x-xiv) vers français signés : "I. D. Casabielhe, Sr. De Chabatenea, St.-Jean-de-Luz"
-p. (xv) vers basques signés : ... "J. Claverie"	-p. (xv) vers basques signés : "Jean Claveria, apezac"
-pp. (xxij-xl) "calendarioaz ..."	-pp. (xxij-xxxix) "calendarioaz"
-pp. (xlj-xlv) tableau de l'épacte lettre dominicale et fêtes mobiles, 1665-1683	-pp. (xlj-xliii) tableau de 1665-1683
-pp. (xlvj-lxvj) calendrier... ..	-pp. (xliv-lxvij) calendrier -erreurs pagination : 117 pour 107 30 " 130 178 " 187 303 " 203 149 " 249 369 " 359 y 374 pour 363

Eskuizkribu honetan eta J. Vinsonen *Essai...* -n agertzen diren datuak (aipatu berri ditugunak) konparatzen baditugu, argi ikusten da eskuizkribu hori J. Vinsonen bi tomo desberdinen kopia bat dela; are, erakutsi ditugun 1665. argitarapeneko datuak (77. orrialdekoak) eskuizkribuaren ezker aldeko zutabearen agertzen dira. *Essai...* -ren bigarren alean (gehiketa eta zuzenkete-na) 17bc izenburu pean agertzen dena da eskuizkribuan eskuma aldeko zutabearen duguna.

Eskuizkribu hau edo Vinsonen datuen aurrean, bestalde, zera komentatu behar dugu :

1. T. I. (Vinsonen bibliografiako lehen alea), p. 77, n° 17a jartzen du ezker aldean; T. II (bigarrena, "Additions et corrections"), p. 544, n° 17bc, eskumaldean.

2. "Petit in-8°"z mintzo da ezker aldean eta "petit in-12" bestean. Neurriak ere desberdin dira (86 mm x 46 mm ezker aldean eta 98 mm x 42 mm

eskuman; kasu honetan, ordea, orrialde zenbaki eta zeinadurak barne).

3. Ezkerraldean “je connais 3 exemplaires de cette édition” dio; eskumaldean “sur 4 exemplaires de cet ouvrage...”

4. Eskuizkribuan agertzen ez den arren, liburuan, zuzenketa eta gehiketen alean, “Edition conforme à la précédente, sauf ce qui suit :” jarri zuela ikusi dugu.

Zenbat ale desberdin izan ditu Vinsonek eskuartearen 1665.eko edizio-koak? Zergatik jartzen du 17.b (eskuizkribuan 17a jartzen da) eta 17b, c bestean? Zergatik mintzo da “Edition conforme à la précédente” denak 1665.ekoak badira? Ez ote da izango, eskuizkribua eta *Essai...*-ko datuen arabera, 1665. urtean *Eliçara erabiltceco liburua*-ren bi argitarapen desberdin izan zirela, eskuizkribuaren izenburuak berak dioenez? Lehen argitarapena 17b izendatu zuen Vinsonek eta honen datuak jarri zituen *Essai...* -ren lehen alean. Bigarren alean (gehiketa eta zuzenketenean), aldiz, 17b, c izendatzen du aurkitzen duen edizio berri hori, berori ere 1665. urtekoa. Ezin du 17c izendatu 1666. urteko izendatua baitu horrela.

Baionako Museoa lortu genuen alera itzuliz, zera aipatu : lehen 16 orrialdeak faltu ditu (lehen plegua, beraz). Liburua aztertu eta bertan aurkitu ditugun datuak J. Vinsonek eskuizkribuan eta *Essai...* -ko bigarren aleak (17bc aipamena) jarri dituenekin bat datoz erabat.

Desberdina izan zitekeen 1665.eko argitarapenik bilatzen jarraitu eta Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunera abiatu ginen, hemen baitago orain garai batean Gipuzkoako Foru Aldundiko Julio Urkixo liburutegia. Hemen ere, 1665.eko ale bat dago eta beronek lagundu zigun Baionakoak ez zuena osotzen. Alearen azala J. Vinsonek egin zion Julio Urkixori eskuz, azken honek aitortzen duenez.⁸ Ale honetako datuak ere Vinsonen 17bc argitarape-narekin datoz bat.

Eskuizkribuan irakurri ahal izan dugunez, Vinsonek 17b argitarape-neko ale bat Baionako Udal Liburutegian zegoela (3.822 zenbakiduna) adierazten zuen. Berrito ere, bada, Baionarantz abiatu ginen Udal Liburutegian izan zitekeen alea aztertzen. Ez genuen, ordea, 3.822 zenbakidun ale hori aurkitu. Lehenik Txarles Bidegain eta beranduago niri neuri adierazi digute-

⁸ J. Vinsonen *Essai...* -ren hiru edizio desberdin erabili ahal izan ditugu eskuartearen. 1984.ena Gipuzkoako Foru Aldundiko *Seminario de Filología Vasca* Julio de Urquijok argitaratu zuena da J. Urkixoren oharrez osotua dagoena eta 17.b liburuariko dagokion oharretan agertzen da *Eliçara erabiltceco liburua*-ren argitarapen honen azalaren kontua.

nez, lapurrek behin baino maizago egin dute bisita liburutegi honetara eta baliteke, besteren artean, ale hau ere eramana.

Dena den, Pierres Lafitte zenaren funtsak hemen daude orain, eta funtsotan, 64. zenbakiaz, *Eliçara erabiltceco liburua*-ren 1665.eko ale bat dago. Hau da aztertu ahal izan dugun hirugarrena. Honek ez du azalik falta; bai, ordea, P. Axular eta P. Guillentenaren “Approbatio theologorum” -i dago-kion orrialdea, J. Iharcus-en “Epigrammata in laudem autoris” -i dagozkion biak eta I. D. Casabielheren “A Monsieur de Etcheverry docteur en Theologie” bertsoen lehen orrialdea; lau orrialde, guztira. Amaieran ere, 435-436. orrialdeak falta ditu; 435.a aurkigariaren azken orrialdeari dagokiona eta 436.a zuriz dagoena. Dena den, liburuaren amaieran 24 orrialde (hamabi-^{bi}reneko plegu bat, beraz) gehitu zaizkio liburuari geroago, berriro koadernatu aurretik. Orrialde hauetako lehenetan, eskuz idatzi dira hasieran falta diren 4 horiek (P. Axular eta P. de Guillentenaren baieztapenaren ondoren, parentesi artean eta zirriborrotuta, “tire de l’edition de 1666, laquelle est copié et corrigé...” dakar. Azken bi hitzak ez dira ondo ikusten eta 1666.eko data zuzendua dago azken 6aren gainean 5 bat jarri dutelarik). Liburu hau Pierres Lafitteren funtsetan dagoela kontuan izanik, baliteke eskuz idatziriko gehike-ta guztiak berak egin izana.

Beste ohar bat ere egin beharrean aurkitzen gara. 1665. urte honeta-ko hiru aleetako 25. orrialdeko azken bertsoa eta 26.eko lehen biak hauek dira :

*Arren bada çuc kegaira
Itfäs gaitcean guerthatu
Ohi direnetaric.*

Pierres Lafittek (berau izan baldin bada zuzenketa eta prestaketak egin dituena) *kegaira* zirriborrotatu eta honako hau idatzi du :

*Arren bada çuc beguira
gaitçaçu gaitzetaric*

lau bertsook, beraz, honela uzten dituelarik :

*Arren bada çuc beguira
gaitçaçu gaitzetaric
Itfäs gaitcean guerthatu
Ohi direnetaric.*

1666. urteko argitarapenean, ordea, hünizpalau bertso hauek tokian honako zortzi hauek ditugu :

*Arren bada çuc gaitçatçu
Beira etşaietarie
Eta halaber gaitçatçu
Itşaffo gaitzetarie ;*

*Gal esteçagun vntcia
Etşaien eşcuetan ;
Eta gal gure arimac,
Ifernu gorrietan.*

Eskuz idatziriko Axular eta Guillentenaren baieztapena ere “*Nos infra scripti jussu Illustrissimi ac Reuerendissimi Domini Domini nostri Episcopi Bayonensis alteriti legimus librum hunc Cantabrico Neru (?)...*” hasten den bitartean, 1665 eta 1666.eko argitarapenetakoa “*Approbatio Theologorum. Perlegimus hunc librum ad ecclesiam gestatorum...*” -ez hasten zaigu.

Ikus dezakegunez, bada, zenbait desberdintasunen aurrean aurkitzen gara. Pierres Lafittek berak nahita eginikoak ala aurrean izan duen ezezagun zaigun argitarapen baten ondorioz eginikoak ?

Funtsezko arazoak, haatik, bere hartan jarraitzen zuen : 1665.ean bi argitarapen desberdin izan direnentz erabakitzea. Uste genuen (eta uste horretan jarraitzen dugu) Julien Vinsonen liburutegia aurkitzea garrantzitsua izan zitekeela, norbaitek izatekotan, berak izan baitzitzakeen 1665.eko bi argitarapen desberdinen aleak (baldin eta bi izan badira). Liburutegi honen aztarnak jarraitzen hasi ginen eta Henri Lacomberen artikulua batean (1927 : 63) “Julien Vinson laisse plusieurs travaux inédits : nous espérons qu’ils seront publiés par M. Paul Vinson, qui s’intéresse aux études basques et garde la riche bibliothèque de son père.” irakurri ahal izan genuen. Hemen eta han galdetzen hasi eta J. Vinsonen liburutegia ez baina H. Lacomberen liburutegiaren berri eskaini ziguten. Hau Donibane Lohitzunen zegoen, M. Josefa Lanuza Telesforo Monzon izan zenaren alarguntsarenean, azken hauek H. Lacomberen arrebari eresia 1948.eko otsailean.⁹

Liburutegi honetan izugarritzko altxorra dago eta bertan *Eliçara*-ren 1665.eko lau ale desberdin aurkitu ditugu. Eskuizkribuen artean, Vinsonenak, Dodgson eta Lacomberenak ditugu eta azken honenak aztertuz, agian, liburutegiaren jatorriaren berri izan genezake.

Eliçara-ren lau aleetara itzuliz, hona labur-labur bakoitzaren egoera :

⁹ Lacomberen artxiboari buruzko datu zehatzak nahi dituenak jo beza J. A. Arana Martijaren “Georges Lacomberen artxiboa” artikulura (1997 : 49-77). Aranak dioenez, Lacomberen liburutegia Bergarako OIaso Dorrera ekarri da eta gela berezi batean ordenatuta kokatu, bitartean liburu eta dokumentu guztiak katalogatzen ari direlarik.

1. Azala ondo gorde du baina hurrengo 19 orrialdeak, nonbait galduak zituela, eskuz berridatziak dira. 407. orrialdetik aurrera ere, eskuz berridatzi dira falta direnak.

2. Bigarren ale honek lehen 16 orriak (plegu bat) falta ditu eta 17. orrialdean hasten da (qq zeinadura daraman orrialdea). 412. orrialdetik — aurrera era falta dira eta ez dira, kasu honetan, eskuz berridatzi.

3. Honek lehen 6 orrialdeak falta ditu (“*Approbatio Theologorum*” -ez hasten da) eta falta dituenak eskuz berridatzi dira, amaierako aurkigarria bezala.

4. Hau da osorik dagoen ale bakarra. Kontrazalean, eskuz idatziriko “J. P. Arbelbide pre... ou Hasparren, Basses-Pyrénées” dakar.

Dena den, laurak ere, J. Vinsonek 17bc atalean jarri duenari dagozkio.

Izan dugu, azkenik, *Eliçara erabiltceco liburua*-ren 1665.eko zortzigarren ale baten berri.¹⁰ Hau Chicagoko The Newberry Library-n dago, Luis Luziano Bonaparte Printzearen funtsetan. Hona zer dioen Samantha Kahn Herrick-ek idatzi zigun gutunak :

I have examined Bonaparte Collection number 1181 (Etcheberri : *Eliçara erabiltceco liburua*. 1665) and have compared it with Vinson’s description of the 17a and 17bc editions wich you included in your letter.

Bonaparte 1181 corresponds in almost every respect with Vinson’s description of the 17bc edition...

1665. urteko zortzi ale desberdinek, bada, ez dute alde nabarmenagirik erakusten eta denak datoz bat J. Vinsonek 17bc atalean eman dizkigun datuekin. Jarri duen “*edition conforme à la précédente*” hori jarri ez balu, hiru ale aztertu, 17b atala idatzi eta geroago, laugarren bat aurkitu zuenean, berriro 17bc atala idatzi zuela pentsatuko genuen, baina ezarri ditugun 17b eta 17bc atalak eta eskuizkribua ikusita ez genuke, aho betez, 1665. urtean edizio bakarra izan dela baieztatuko.

¹⁰ Ikus V. Collins en *Attempt...* (1894).

1.1.3. 1666.eko lekukotasuna

Hona, orain, hirugarren argitarapenaren Vinsonen aipamena :

“17 c.- ELIÇARA | Erabiltçeco | libvrua. | ioannes etcheberry
| Dotor Theologoac | eguiña. | *Eta Iaun Noble BERTRAND* | *DE
ETCHAUS Turfco*, | *Archiphizpicu digneari* | *dedicatu*. | Bigarren
aldian Imprimatua. | (fleuron) | PAVEN, | Ioannes Desbaratz, |
Erregueren Imprimatçaillea | Baithan. 1666.”

Hau ere in-8 txikia erakoa da, (ij)-64-517-(xj) orrialdetako. Zeinadurak : aurretikoetan a p. (i), a ii p. 1, e p. 17, i p. 33, õ p. 49; testuan A p. 1, B p. 17, C p. 33, D p. 49, e.a. Neurriak : 50 mm 5 x 96 mm.

British Museum-ean lortu genituen argitarapen honen ale oso baten fotokopiak. Beste ale batenak Urkixo liburutegian, baina azken 100 orrialdeak falta ditu. Chicagoko Newberry Library-tik ere bidali digute argitarapen honen ale baten fotokopia bat, baina oso zaharkitua dago eta orrialde mordoa falta du, dituenak ere oso egoera txarrean daudelarik. Ez gara ezertarako baliatu azken ale honetaz. Sancho El Sabio Fundazioak ere urte honetako ale baten kopia bat du.

Eliçara erabiltçeco liburua-ko 1666.eko argitarapenak, bestalde, 1665.ekoak ez dakartzan bertso batzuk ditu. Azken pleguko (513. orrialdean hasten dena) taula 517. orrialderraino besterik ez da heltzen. Honek zera esan nahi du, plegu erdi bat erabil zitekeela, baina osoa zein erdia erabili (16 edo 8 orrialde) amaieran zenbait orrialdek zuriz geratu behar zuen. Orri zurioz baliatu zen edizio honen prestatzailea bertso berri batzu sartzeko; Etxeberrirenak ez diren bertsoak. Bertso hauen egilea (edizioaren prestatzailea ere ote? Guk baietz uste dugu) nor izan zitekeen pentsatzen hasi eta zera ikusten genuen hasieran :

“IESVSEN
COMPAGNIACO

Aita Batec

D’etcheuerry Doctor cenaren

Adi/quideac”

Argi genuen, bada, Jesusen Konpaniakoa eta Etxeberriren adiskide zena. Bi datuok eta Paben argitaratua delakoa kontuan izanik izen bat etorri zitzaigun burura : Bernardo Gazteluzar. Bera ere, Lafitte jaunak dioskunez

(Lafitte, 1974a : 9), ziburutarra zen eta Jesusen Konpanian sartua. Konpaniak Paben zuen ikastetxean bizi eta hil zen.

Gazteluzar 1619.ean jaio zen eta 1701.eko apirilaren 15ean hil, Paben. Litekeena da, beraz, Etxeberri eta Gazteluzarrek elkarren berri iza-tea ezezik adiskide izatea ere.

Vinson ere, bere garaian, Gazteluzar izan zitekeen ustekoa zen (Vinson, 1908 : 671). Ez digu, baina, Vinson jaunak uste horren arrazoirik ematen.

Guk, ordea, uste horiek areagotu eta baieztapen bihur ditzaketen zergatiak ditugu :

1. *Eliçara erabiltceco liburua*-n agertzen diren Etxeberrirenak ez diren bertsoak IESVSEN COMPAGNIACO Aita Batec sinatzen ditu. *Eguia catolicac* liburua, BERNARD GASTELUÇAR JESUS-EN COMPAIGNIACO AITAC. Antz handia dute, bada, bi testuak.

2. Gazteluzarrek darabiltzan bertso-neurriak aztertzean, itzulitako bertsoez landa, bospasei neurri erabiltzen dituela erakusten digu Lino Akesolok (1983 : 17), launako bertsoan, puntukide bigarrena eta laugarrena dituelarik : 9/8, 9/8 ; 8/8, 8/8...

3. Pierres Lafittek, bestalde, Gazteluzarren bertso-gintzaz ari dela (1974b : 170 hh), neurtitzak aztertzean zera diosku, nahiz eta bi lerrotan jartzen dituen 17 silabako bertsoak (9 eta 8 silaba) neurtitz bakartzat dugula bi zatitako esangune hori, lehen zatiak ez baitu rimarik.

Hamasei neurtitz forma aurkitzen ditu Gazteluzarren *Eguia catolicac* liburuan eta hamalaugarrena, 17 silabatakoa, 9 x 8 formakoa, maizenik erabilia dela dio, neurtitz forma hau delarik, hain zuzen ere, gure bertsootan agertzen dena.

4. Badakigu, gainera, Etxeberri Ziburukoarekin batera, Ziburukoa, itsasaldeko semea beraz, izanik bertso asko eta asko duela marinelei eskainia. Guk aztergai ditugun bertso hauek ere “Marinelen favoretan” eginak dira. Gazteluzarrek berak *Eguia catolicac* liburuaren “Abisua” atalean honela dio (Akesolo, aip. lan. : 31) :

Denbora hautan, hañitzek hañitz liburu eder argira eman tuste ; ezta, bada, hau bertzeak baño ederragoa ; bañan nola berze gauzctan bezala, debozionatean gustu diferenteak baitire, iduritu zait hañitz deboten artean, batzuek huntan gustu hartuko dutela, gustiz mariñel debotek ; eta hek prinzipalki konsideraturik, deliberatu dut liburu hunen egitera.

5. Gure bertsook eta Gazteluzarren *Eguia catolicac* liburuko III. parteoak konparatzen baditugu, antz-antzekoak direla ikusiko dugu. Are, zenbait pasarte berdin berdinak dira :

Eliçara : “Ceren triftetu baitçaitut” (32. bertsoa)

Eguia catolicac : “Ceren zu tristetu zaitudan” (106. or.)

Eliçara : “Helas Jauna! helas Iaincoa!” (41. bertsoa)

Eguia catolicac : “Helas, Jauna! Helas Jainkoa!” (107. or.)

6. Lino Akesolok, Gazteluzarrek darabilen euskara aztertzen duelarik (Akesolo, 1983 : 18 hh.), puntu hauek azpimarratzen ditu, besteak beste :

- Gazteluzarrek ez daki ‘ukhan’ erabiltzen, ‘izan’ edo ‘izatu’ beti.
- Bitik gorako zenbakiekin ez du inoiz aditza singularrera bialtzen.
- Futuroko adizkietan, -nen bukatu beharrean -ren ere egiten du. Bertsoaren puntuak eskatzen zuelako egin du hori, noski.
- ‘Gusti’ esekin darabil, ez ‘guzti’.
- Jainkoa bi eratara du : ‘Jainko’ eta ‘Jongoiko’.

Bost puntu hauen adibide ugari aurkitu ditugu *Eliçara*-ko bertsoetan eta, aipatu ditugun arrazoi guzti hauek kontuan izanik, zilegi iruditzen zaigu bertsoon egilea Aita Bernardo Gazteluzar dela baieztatzea.

1.2. Zeharkako tradizioa

1.2.1. “Egan” aldizkaria

Joanes Etxeberriren hirugarren liburu hau da ezezagunena jendearentzat. Izan ere, bilatzen saiatu bagara ere, ez dugu bertso sorta bat besterik aurkitu liburu eta aldizkarietan. Berau, A. Irigarai jaunak *Egan* aldizkarian argitaratu zuena da (1958 : 27-30).

Eliçara liburutik jasotako bi bertso sorta desberdin dira. Lehena “Calendarioaz edo demboren contuaz tratatua” izenburua daramana. Honetatik, II, III eta IV. buruak bildu ditu. Bigarren bertso sorta lehen parte-ko III. tratatutik (“Hirur garren tratatua. Cofessatceco antcea laburqui”) hartua dugu. Bere izenburua “Manamenduen araeuz cofeffatceco antcea” da.

A. Irigarai berak “oraiko graphian emanak, itzez itz” direla dioen arren, ez da hau erabateko egia, zenbait hitzetako grafia aldātu —zuzendu esango nuke— egin baitu (‘onetz’, ‘a/tietan’, ‘finhezte’, ‘haritu’...-ren ordeez, ‘onets’, ‘aztietan’, ‘sineste’, ‘arritu’, e.a.).

Argi dago, bestalde, bi bertso sorta hauek 1666.eko argitarapenetik direla jasoak eta ez 1665.ekotik. Irigarai jaunak ezarri duen lehen bertso sortako IV, burua honela hasten da :

“IV. BURUA. I Exemplua, Epacta-k eta illabeteak hogoi eta hamarretara ardiasten ezutenekoa.

Iakin nai dut 1673-ko urtearen buruillean zenbat garren egunean izanen den illargi berria. Konda zazu bein Epacta eta da amabi, gero konda zazu illabetea martxotik asten...”

Joanes Etxeberriren *Eliçara erabiltceco liburua*-ren 1665.eko argitarapenera jotzen baldin badugu, bertan (1665 : xxviiij) “*Iaquin nahi dut 1635. go vrthearen burullean, cembat garren egunean içanen den illhargui berria*” aurkituko dugu, 1666.ekoan, aldiz (1666 : 26), “*Iaquin nahi dut 1673co. vrthearen burullean, cembat garren egunean içanen den illhargui berria*”. Argi erakusten du pasarte honek, bada, A. Irigarairen testuak azken argitarapen honetatik jasoa izan behar duela eta ez 1665.ekotik.

2. 1665.eko eta 1666.eko lekukotasunen arteko erkaketa

2.1. Hutsa *Eliçara erabiltceco liburuan*¹¹

Hauek dira transmisio prozesuan gertatutako hutsen artean esanguratsuenak.¹²

a. duplografia arrunt bezala har genitzakeenak

¹¹ Hutsaren teoria erabiltzearen zergatiaz ikus I. Atutxa (1999 : 274-275).

¹² Derragun huts guztien zerrenda osoa I. Atutxaren doktorego tesiko eranskinetan aurki daitekeela. Bestalde, aipatu jarriko ditugun adibide guztietan agertzen den lehen zenbakia orrialdeari dagokio-ia, bigarrena bertso zenbakiari, ondoren 1665.eko adibidea (B) eta azkenik 1666.ekoa (C).

3	35	dieçadançuen	dieçdaçuen
23	435	Mahañnean	Mahañean
26	485	Aerren	Arren
45	121	Creoac	Credoa
81	1650	Archangeluac	Archangelua
83	1689	guiztiac	guztiac
96	1984	Eliçatc	Eliçac
133	2875	eguinac	eguina
156	1543L	handic	handi
211	3843	bideat	bidea
235	4297	treuerfia	treuefia
267	5057	Eztandui	Eztadui

Hitz osoa soberan dagoen adibideak :

xxxviiij	124	exempla	—
41	1039L	cu	—
122	2603	23	—
140	1183L	bel-	—
146	1323L	idu qul ecen	iduiqui
183	1855L	tu,	—

• 213 orrialdea 1995L lerro zenbakia

Ieſus Chri/to gure iaun eta/aita /eme, airequin eta iain B
 ø /eme, çurequin eta Iain C
 co /pîritu /ainduarequin ba-/tean, mende gzutietaco
 mendetan bici eta aguintcen due-/coren merecietara.

• 348 orrialdea

b.	Iauna çaren gure aldera, vr- vrrical- rricalmendutû, Eta barkha dieçaguçu. Iauna çaren gure aldera vr- vrrical- rricalmendutû, Eta barkha dieçaguçu. Iauna çaren gure aldera vr- rricalmendutû, Eta entçun gaitçatçu.	c.	Iauna çaren gure aldea, mendutû. Eta barkha dieçaguçu. Iauna çaren gure aldera mendutû. Eta entçun gaitçatçu.
379	2498L pag.	—	

• 420 orrialdea 8320 bertso zenbakia

5. Ohore duçu handia/Oraño andre garbia, Ceren Archangeluena/Çaren andre guehiena, Ikhus açu ene pena/O andre bihotz berena ama.	B
O andre bihotz berena ø	C

b. Haplografiatzat har genitzakeenak

xxvj	243L	illhaguia	illharguia
xxxviiij	475L	bazoz	bazcoz
133	2871	kharrez	harrez
134	2900	guic	Eguic
216	1431L	cenean	icenean
391	7737	ibertatea	libertatea

Hitz osoa falta den adibideak :

xxv	215L	hec,	
xxv	229L	vrthe.	
xxvii	1Z4	Epacta	Epactac eta
xxx	321L	eta	
xlvi	542L	egun,	egun ditu,
xlviij	572L	356.	
xlix	594L	martira.	
lvi	IZI	VZTAILLA.	
lvij	781L		Elizabeth Portugaliaco Erreguina Alh. San Ignatio de Loyoa cof. <i>lesu/en</i> Compa
lviiij	810L		Vigilia.
lix	827L		Gauac 12 oren.
lx	861L		Brigita alharguna.
lxij	911L		Vigilia.
lxiiij	935L		San Frances
lxvi	987		Xauier cof. andie- taco Apofolua.

10	171		ene
15	IZ2		VII. BVRVA.
16	IZ2		VIII. BVRVA.
36	IZ6	gauca,	gauça, eta
37	0674		Aita
300	5758	halacoc	
339	IZ2	ad te.	
345	2347L	eguiçu,eta	eguiçu.
395	2636L	dioçoçun	dioçoçun arren.
395	2640L	dieceçun.	dieceçun arren.
396	2646L	deçaçun.	deçaçun arren.
416	IZ1	VI. BVRVA	

c. Ordenaren aldaketaz gertatzen direnak

xxiiij	179L	aul	lau
xxxvi	413L	cien	cein
liij	677L	deberatci	bederatci
15	274	Bitarteco	Birtateco
88	1809	badahi	bahadi
91	1870	Daigu	Diagu
99	2057	techeaz	etcheaz
171	2999	iamua	iauna
174	3085	Alkhain	Alkhian
217	IZ1	TERTIMA	TERTIAM
267	IZ4	opitme	optime
352	6846	hartuca	harhuac
420	8335	aldera	aldare

• 179 orrialdea 3200 bertso zenbakia

1. Ceri elkhar gana çaiçco/Ene et/aiac biiltcen,
Ceri errabiaturic ene/Contra alt chatcen B
/ Ene contra altchatcen C
2. Erraten dutela ecen/Guztiz vci nauçula,
Eta çure baithan çeren/Fidatu eztudala.

• 185 orrialdea IZ1 bertso zenbakia

b.	<p>3. <i>Benedictionea</i> Mana çaqu iauna bedinca gaiten. 3. <i>Abfolutionea</i> Spiritu fainduaren gratiac argui detçala gure beguiac eta bihotçac.</p>	c.	<p>3. <i>Abfolutionea</i> Mana çaqu iauna bedinca gaiten. 3. <i>Benedictionea</i> Spiritu fainduaren gratiac argui detçala gure beguiac eta bihotçac.</p>
----	---	----	---

• 372 orrialdea IZ3 bertso zenbakia

b.	<p><i>Pfal. 18</i> <i>Coeli enarrant</i> 1. Ceruec dute iaunaren Declaratcen gloria, Eta içargorec haren E/çuaren aldia.</p>	c.	<p><i>Coeli enarrant. Pfal. 18</i> 1. Ceruec dute iaunaren Declaratcen gloria, Eta içargorec haren E/çuaren aldia.</p>
----	---	----	--

• 376 orrialdea IZ3 bertso zenbakia

b.	<p><i>Pfal. 23</i> <i>Domini est terra,</i> 1. Munduco bafter guztiac Dire iaun onarenac, Han bici diren guztiac Ere orobat harenac.</p>	c.	<p><i>Domini est terra, Pfal. 23</i> 1. Munduco bafter guztiac Dire iaun onarenac, Han bici diren guztiac Ere orobat harenac.</p>
----	---	----	---

d. Ordezkapenez gertatzen direnak, jarriko ditugun gehienak edo *lectio facilior* edo huts paleografiko bezala hartuak izan ditzakegularik.

lectio facilior

xxxiv	380L	illhabetherac	illhabethe berac
xxxv	IZ2	Epamac	Epactac
4	41	fiega	higa
7	112	miatcera	iuiatcera
57	1144	batezqui,	borthizqui

82	1671	begurçu	bequiçu
98	2033	daroqui	claroqui
122	2594	Haucifruitu	Hauc tuc fruitu
207	3743	Cenerentçanen	Cer ere içanen
214	2010L	kbedchaia	khecha
222	4001	Efaroïçula	Efaro ecula
243	4466	libroagricaric	libro hetaric
244	4487	cuae hitcai	çure hitçac
292	5592	Othoira coarriac	Othoi iratcarriac
327	6385	gogoanen eguinen	gogoan eduquiren

Huts paleografikoak

xix	CXLIV	Nafarl	Nafar Iruñez
21	387	bai aarimar en	baita arimaren
58	697	Meca fã indua	Meça fãindua
72	IZ4	<i>bifitancendut enec</i>	<i>bifitatcen dutenec</i>
160	1641L	Artatjê ancollatione	Arratjêan collatione
231	4184	fïnthetfãraci	fïnhet fãraci
254	4530	baitutez portçu	baitut ezportçu

Jarraian, eta huts komun eta huts banatzaileei ekin aurretik, bi kontu bitxi aipatu nahi ditugu, lekukotasun desberdinek jarraitu duten lehen pista emango digutenak.

• “*Iainco bat denari bere perfectioneen gañean, orenac Astelehenecotz*” bertso sortan, 9 bertso ahapaldi ditugu; lau bertso ahapaldiko, pareak hoskide direlarik. Hona bigarrena :

Duçu ceure içatea,
Nihoren gañic içatu
Gabe lehen hañea

6887. bertsoa falta da bi edizioetan. Zorionez, bertso hori zein den azaltzeko gai gara, *Noelacen* ere errepikatua agertzen baita. Are, atal luze bat errepikatzen da bi liburuetan. Izan ere, E 352-362 orrialdeetan “ASTECO EGUN guzitetaco orenac. Iaincoari orenac gutçaz arduraren gañean Igandecotz” ditugun 64 ahapaldi (256 bertso) errepikatuak ditugu N 178-191 orrialdeetan, liburu honen hirugarren partearen hasieran.

Hona bertsoak :

Noelac

Ingoico bakhotcha
Cantateen tut çure orenac,
Arren entçun tçatçu ceure
Laudorio çucenac.
O Iaun handia, ceurenez
Duçu ceure içatea,
Nihoren ganic içatu
Gabe lehen hañtea.

Eliçara erabiltceco liburua


Ingoico bakhotcha, çure
Cantateen tut orenac,
Arren entçun tçatçu ceure
Laudorio çucenac.
Duçu ceure içatea,
Nihoren gañic içatu
Gabe lehen hañtea.

• Ama Virginari eskainitako “*Mysterio goçoffoac*” bertso sortan, 7 bertso ahapaldi ditugu; sei bertso ahapaldiko, pareak hoskide direlarik. Laugarren bertso sortan (3 zenbakiz hasten dena) honela dugu :

3. Bañan are guehiago
Placer hartu cinduen,
Ceure ÷eme ederraz noiz
7880 Ere erdi bai teinen,
Eguiteco obra onen.

Hemen ere bertso bat falta da, 7881.a hain zuzen.

8.400 bat bertsoz osotutako liburua dugu *Eliçara erabiltceco liburua* eta eskuartean darabiltzagun bi edizioetan 6887 eta 7881. bertsoak falta dira. Dena da posible, eta hemen berdinen arteko jauzi edo homoioteleutonez gertatutako jauzi baten aurrean izan gaitzke; eskuzko tradizioan oso arrunta izan zitekeena.



Hau honela izaki,
jarraiko bideak posibleak dira :

Hau da, lekukotasun
batek bestea irakurri duela edo
biak goragoko bat irakurri
dutela. Baina gaitzes daitekeena

bakoitzak bere aldetik goragoko lekukotasun independenteak irakurri dituz-

tela, oso zaila baita bi edizio desberdinek erakutsi ditugun bezalako adibi-
deetako jauziak bi toki jakin hauetan egitea.

Jarraiko adibideaz mintzatuak gara dagoeneko. Izan ere, lehen
parteko II. Araldeko I. buruan, 7. atala “Arrantçaileen othoitçac” izenburua
duena dugu. 1665.eko edizioak honela dio :

Arren bada çuc kegaira
Itfâs gaitcetan guerthatu
Ohi direnetaric.

1666.ekoan, aldiz, honako zortzi bertsook ditugu :

Arren bada çuc gaitçatçu
Beira etfâietaric
Eta halaber gaitçatçu
Itfâffo gaitzetaric ;
Gal efeçagun vntcia
Etfâien eçuetan ;
Eta gal gure arimac
Ifernu gorrietan.

Pierres Lafittek honela zuzendu du 1665.eko edizioa :

Arren bada çuc beguira
gaitçaçu gaitzetaric
Itfâs gaitcean gerthatu
Ohi direnetaric.

Manual devotioñezcoan, bigarren liburuan, 142. orrialdeak
“Guardiaco othoitcez” izenburupeko “Bigarren guardiacoac” ahapaldiak
honela dio :

O Ingoico uholdetic Noe beguiratua,
Ceren bakharric munduan aurkhitucen iu/fua,
Eta ez berriz punitceco hain garrazqui mundua,
Holtz adarra lekhucotçat emanic aguindua,
Arren bada çuc beguira gaitçatçu caltetaric,
Itfâffoan preçentatu ohi tuenetaric.

Baliteke, bide desberdinok ikusita, adibide honetan ere aurreko bietan gertatu dena gertatu izana; hots, iturri den lekukotasunean bertso bat *falta izan eta, ondorioz, aieruz, zuzendu nahi izana*. Argi dago 1665.eko lekukotasunean ez dela bertso hori osatzeko edo birjartzeko ahaleginik egin. Pierres Lafittek “gaitçaçu gaitzetic” gehitu du. *Manualeko* adibideari jarraiki, aditzean bete betean joko luke, gero “gaitzetic” jarri badu ere. Ez dirudi egokiena denik *Manuala* eta jarraiko bertsoa “Itsas gaitcean” kontuan baditugu. 1666.eko lekukotasuna da gehien aldentzen dena; gure ustez urrunegi joan dira aieruan (hona beste aldaketa kontziente bat), jatorrizko testuan ez leudekeen elementu berriak sartuz (etsai, arima, ifernu...).

Are, aztertu ditugu Etxeberriren hiru liburuak eta ez dugu behin ere aurkitu (adibide honezaz aparte) ‘ifernu’ hitza ‘gorri’ izenondoaz lagundua. Aurkitu dugu ‘beltz’ izenondoaz, ez, ordea, ‘gorri’az. Eta ‘gorri’ izenondoa bera ere ‘billus’ edo ‘zeru’ lagunduz baizik ez da ageri. Aldaketa kontziente baten aurrean geundekeen frogak berri bat : 1666.eko lekukotasunan, amaieran gehitu diren bertso berrien artean, “*Aita harc berac Iesus Christori Gurutcearen aiticinean Contricionezco Orationea*” bertso sortaren barnean (23 ahapaldi dira, lau bertsoetakoak, pareak hoskide direlarik) zazpigarren bertso ahapaldiak honela dio :

Iauna ; ezbacindu ceruric
cure adi/quideentçat,
Eta ez ifernu gorric
cure et/ai gaixtoentçat.

Ikus ditzagun orain jarraiko bi adibideok :

• **153 orrialdea 1474L lerro zenbakia**

- | | |
|--|---|
| <p>b. <i>Erraçu ala marchandifa
faltcean ala contratu falfoiragatean
iragatean.
Communaren ontassunac
artificioz neure eguin tut.
Hamarren primitiac ezti-
tut vngui pagatu.</i></p> | <p>c. <i>Erraçu ala marchandifa
faltcean ala contratu falfo
iragatean.
Hamarren primitiac ezti-
rut vngui pagatu.</i></p> |
|--|---|

• 161 orrialdea 1654L lerro zenbakia

b) Gauça contrarioac anoco placera gatic ian içatu tut eta gaizqui aurkhitu naiz. Soberacinteurrari emana içatu naiz Hargatic gauaz liçundu icatu naiz eta amets de/ønheftac eguin tut.

c) Gauça contrarioac ahoco placera gatic ian içatu tut, eta gaizqui aurkhitu naiz. Hargatic gauaz liçundu içatu naiz, eta amets de/ønheftac eguin tut.

Oso esanguratsuak dira, bietan berdinen arteko jauzi bat izan eta 1666.eko edizioan ez baitira 1665.ekoan agertzen diren lau lerro agertzen. Edizio honetaz aipatu ditugunak aipu, 1665.ekoan agertuz, zera adierazi beharko lukete, lekukotasun honek ez duela 1666.ekoa irakurri (inprimatze datak berak ere argi uzten du hori, nahiz eta inprenta oinok, maiz, fidagarriegiak ez izan), honetan hartan ez dauden bertsoak baititugu. Honela, jarraiko bidea ezaba liteke :



Jarraian huts banatzailatzat har genitzakeen adibideak azalduko ditugu. Ez gaude ziur, 1666.eko lekukotasunan agertzen diren eskuhartze kontzienteak, ikusi dugunez, askotxo baitira; beraz, baliteke jarraiko zenbait adibide aldaketa kontziente eta ez huts izatea. Eman ditzagun, haatik, adibideok :

• v orrialdea xliij lerro zenbakia

A/çoc ohoratu çaitu/Ceure orientean
Cenec

B
C

Nic aldiz eguiten çaitut/orain occidentean

• **xxxv orrialdea** **122 lerro zen**

III. Hirugarren exemplua/Epamac	IIIhabeteac, eta	B
	Epactac	C
IIIhabetheco egunec, hogoi eta hamarren contua		
chitcen dutenecoa.		

• **xxxviiij orrialdea** **476L lerro zenbakia**

Efteiac concilioaz deuecatuac dire, abendoaren lehen igandetic	B
Afte hec	C
Trufaniaraño edo erregueen beƒaraño	

17 lerro lehenago dugun “Aste hec dire Pentecoste ondoco...” horren ondorioz egindako hutsa, zalantzarik gabe.

• **5 orrialdea** **61 bertso zenbakia**

b. Egun oro behar gare	c. Egun oroz behar dugun
Iguçu mantenua	Iguçu mantenna
Eta guc berceri leguez	Eta guc berceri leguez
Huƒen barkhamendua.	Huƒen barkhamendua.

‘Gure Aita’ da eta 56. orrialdean errepikatua dugu. Kasu honetan, bi lekukotasunetan irakur daiteke “Egun oro behar gare,/ Iguçu mantenua”. Beraz, argi dago irakurketa zuzena Brena dela.

• **9 orrialdea** **143 bertso zenbakia**

b. Milla eƒquer darozquiçut	c. Milla eƒquer daroz
Hartaracotz gratiez,	Hartaracotz gratiez
Lehenecotz gratiez,	Lehenecoez
berriro iffuriez.	Berriro iffuriez.

Argi dago Bren irakurketaren hutsa perikopa bereko ‘gratiez’ horren erakarpenez gertatutako ordezkatzeari dugula.

• 14 orrialdea 249 bertso zenbakia

- | | |
|---|--|
| b. O Spiritu gratia,
Sainduen ithurria,
Nauçun othoi vrricari,
Guztiaz billucia. | c. O Spiritu Saindua,
Sainduen ithurria,
Nauçun othoi vrricari.
Guztien billucia. |
|---|--|

Hutsa, bada, hiru bertso goragoko 'gratia' horren erakarpenpez gertatutakoa dateke. 1665.ekoa aldaketa kontzientea bada, agian, jarraian 'Sainduen' izan eta ez duelako 'Saindua/Sainduen' jarri nahi izan.

• 57 orrialdea 1144 bertso zenbakia

- | | |
|--|--|
| b. Hirur çathi eguiten du
Guero faindu hořia,
Hirur cathi iaunac eguin
Emauřen oguia :
Limořnari içateco
Eguidaçu gratia. | c. Hirur çathi eguiten du
Guero faindu hořia,
Hirur çathi iaunac eguin.
Içar çuen, oguia :
Limořnari içateco
Eguidaçu gratia. |
|--|--|

• 60 orrialdea 1213 bertso zenbakia

- | | |
|---|--|
| b. Ieřus mintçatuco çure
Gaichtoei afferreric ?
Guarda naçaqueçu othoi,
Hequin řententiaric. | c. Ieřus mintçatuco çaie
Gaichtoei afferreric ;
Guarda naçaqueçu othoi.
Hequin řententiatric. |
|---|--|

• 69 orrialdea 1388 bertso zenbakia

Guertha eztaquidan neure
Arimaren caltean,
Bañan aitecitic probetchu
Eta ontařfun handitan
Handi aberatřean

B

C

• **76 orrialdea 1546 bertso zenbakia**

Cuec guida naçaçue/Har chidor meharrean	B
Bide chigor	C
E/quer dieçuçuedan/Itçul ceru gañean.	

• **157 orrialdea 1566L lerro zenbakia**

Errachquiago çuagogeà hartceagatic eta ez...	B
çuc gogoan	C
gauça bera bietan aiphatceagatic ceren biac	
batetara billtçen baitire	

• **179 orrialdea 3200 bertso zenbakia**

b. Ceri elkhar gana çaiçco	c. Ceri elkhar gana çaiçco
Ene et/aiac billtçen,	Ene et/aiac billtçen,
Ceri errabiaturic ene,	Ceri errabiaturic.
Contra alt chatçen.	Ene contra altchatçen.

• **179 orrialdea 3205 bertso zenbakia**

Erraten dutela ecen/Gutziz vçi nauçula,	
Eta cure baithan ceren/Fidatu e tudala.	B
ez naicela.	C

• **214 orrialdea 2027L lerro zenbakia**

Iauna beguira dieçeçu ceure çerbitçariei, eta	
ceure obrei, eta guida etçatçu hequin /èmeac	B
hequiñ	C

Jarraian datorren "hequiñ" horren ondorioz..

• **312 orrialdea 2274L lerro zenbakia**

Mintçaçuco naiz içare arimaren behaçanean,	B
ene	C
eta erranen dut ez naçaçula condemna.	

• **317 orrialdea 6110 bertso zenbakia**

Aăpaldion dacu/ăcun/Leguez dut laceria,
Nauçun beraz vrricari/O iongoico eřia
handia

B
C

• **318 orrialdea 6148 bertso zenbakia**

Aparta çaquizquidate/Beraz et/ai azpreac
goffeac
Ecen iaun onac entçuntic/Ene auhen triřeac.

B
C

• **319 orrialdea 6164 bertso zenbakia**

Gloria duela iaunac/Bai halaber řemeac
aitac
Nola oraño řpiritu/Amudioz betheac.

B
C

• **353 orrialdea 6872 bertso zenbakia**

Ordanez darozquigutçu/Içar cheheac bitztea
arrait/uac
Gau belceco illhunbetan/Hetçaz guida gaitecen.

B
C

• **370 orrialdea IZ2 bertso zenbakia**

Domine Deus nořter
Domine Dominus nořter

B
C

• **393 orrialdea 2585L lerro zenbakia**

Maria řaindua
Gutçaz othoitz eguiçu
Iaincoaren ama řaindua
Gutçaz othoitz eguicu.
Eta halaberce guztietan
Eta hala ondoco guztietan

B
C

• 403 orrialdea 7931 bertso zenbakia

- | | |
|--|--|
| <p>b. Ea cein cen ecin
Guineraque damua,
Ikhuſſi cinduenean,
Habean itçatua
Ardiats dieçadaçu
Bekhatuen dolua.</p> | <p>c. Ea ceiñ cen norc deraque
Gaineraquo damua,
Ikhuſſi ciñduenean.
Habean
Ardiats dieçadaçu
Bekhatuen dolua.</p> |
|--|--|

3. *Eliçarari buruzko zenbait kontu bibliografiko*

Ez dugu uste *Eliçara erabiltceco liburuan* zuzenketak egiteko aukerarik izango zuenik Joanes Etxeberrik.¹³ Ez da 1636.eko agiango edizio horren alerik ezagutzen eta 1665.ean (ezagutzen den lehen edizioaren argitarapen data) hila da. Urte honetako edizioa ez da bat ere jagona eta, dirudie-nez, zuzentzailea ez zen zuhurregi ibili.

Liburuaren eskaintzak direla eta, *Eliçara erabiltceco liburua* Bertrand Etxauz Turs-ko apezpikuari eskainia da. Eta liburu honetan, *Manualean* ez bezala, azalean ere agertzen da. Honela dio 1 zenbakidun orrialdean :

DEDICATIONEA
IAVN NOBLE, BERTRAND
DE ETCHAVS,
SORBONACO DOCTOR
Iaquintün, Turçco Archiphizpicu
digne, erregueren predicari fama-
tu, & Conſeiller cuhurrari.

64 bertso dira eta beraietan zehar ikusiko dugu Etxeberri Ziburukoak dion begirunea Bertran Etxauzi. Benetan ederrak dira bertsook.

¹³ Ezagun dugun *Noelacen* 1645eko lehen lekukotasunean, esaterako, espreski mintzo zaigu Etxeberri kontu honetaz. Hona zer dioen liburuaren azken lerroetan : “Iracurtçaillea, excuſatuco nauçu baldin impreſſionean cembait falta edireten baduçu, ecen ezainteen neroni lekhuaren gañean”.

3.1. Inposaketa modua : plegu eta zeinadurez¹⁴

1665.eko edizioa in-8 txikia formatokoa da; plegu mota aldetik¹⁵ zera esan behar da, hau zortzireneko plegu oso (21, 336 orrialde betez) eta erdiak (beste 21, 168 orrialdez) tartekatuz eratua dela; guztira, 504 orrialde.

Liburu bera hasi aurretiko orrialde guztiek zeinadura mota desberdina zeramaten. Kasu honetan 6 otso hanka, Vinsonen terminologia erabiliz (1891-8 : 544).

Aipatu ditugun aurretiko orrialdeetako lau azkenak (qqqqqq zeinadura duenaz hasi eta zuriz dagoena kontatuz) liburuaren 4 lehen orrialdeekin batera plegu erdi bat osotzen dute. Horrexegatik hasten da A zeinadura 5 zenbakia daraman orrialdean eta ez 1-arenean.

Zortzireneko pleguak lau zeinadura eraman behar ditu plegu erdiraino; bi laurenekoen kasuan. *Eliçara*-ren edizio honetan ez da hau betetzen. Bestalde, 164, 284 eta 292 orrialdeetako deiak ere ez dira agertzen.

1666.eko edizioaren zeinadura sistema oso erregularra da eta zeinadura guztiak agertzen dira. Zortzireneko pleguetan dago eratua (lau zeinadura izan beharko lukete pleguko eta ez hiru, beraz); aurretiko orrialde guztiek lau plegu osotzen dute (64 orrialde) eta liburuak berak 33 plegu zortzireneko (528 orrialde). Guztira, bada, 592 orrialde dira.

Azken pleguko (513. orrialdean hasten dena) taula 517. orrialderaino baino ez da heltzen. Honek zera suposatzen du, plegu erdi bat erabil zitekeela, baina osoa zein erdia erabili (16 edo 8 orrialde) amaieran zenbait orrialdek zuriz geratu behar zuen. Orri zurioz baliatu da edizio honen prestatzailea bertso berri batzu sartzeko; Etxeberrirenak bereak ez diren bertsoak.

Komentatu nahi genukeen zertxobait dago, bestalde. Mende honen hasieran nolabaiteko eztabaida gogorra izan zen euskararen munduan ihardun ziren bi hizkuntzalariren artean, Vinson eta Dodgsonen artean hain zuzen. Kasua da Vinsonek bere *Essai...* -n Londreseko British Library-n Joanes Etxeberriren *Eliçara erabiltceco liburua*-ren 1666.-eko edizio oso bat zegoela zioela. Dodgsonek hori ezeztatu egiten du edizio horrek 3 eta 4

¹⁴ Bi lekukotasunen zeinadura guztien zerrenda-erkaketa ikusi nahi duenak jo beza I. Atutxaren doktorego tesira.

¹⁵ Inprentako konposaketa moduei buruzko xehetasun gehiagotarako ikus Moll, 1984.

orrialdeak falta dituela esanez (1907 : 486).¹⁶ Gogor erantzun zion Vinsonek (1908 : 671) liburua bere osotasunean gordetzen zela erakutsiz. Honetarako, besteak beste, zeinaduren arrazonamendua jarritz. Hona Vinsonek zioena :

Le volume est complet, et très complet, [1666.ekoaz mintzo da] et je le prouve :

1. par le nombre des pages. Il comprend 2 p. r. ch. pour le titre dont le v^e est blanc, deux p. chiffrées 1-2, soixante p. chiffrées 5 à 64, 517 p. chiffrées 1 à 517 et onze p. non chiffrées, ce qui fait en tout 64+528. Or 64 et 528 divisés par 16 donnent exactement 4+33; le volume donc contenir exactement quatre et trente-trois feuilles; la signature a doit être à la p. 1 des préliminaires, e à la page 17, i à la page 33, o à la page 49; A doit être à la page 1, B à la page 17; C à la page 49, et la dernière KK à la page 513, ce qui est exact. Donc le volume est complet, la feuille préliminaire a ayant ses huit feuillets.

2. par les signatures. Dans cette édition, les feuilles sont signées par les trois premiers feuillets a, aij, aijj, etc., B, Bij, Bijj, etc. Or le titre n'ayant pas de signature conformément à l'usage, aij est au feuillet paginé 1-2; aijj au feuillet 5-6; Donc, 5-6 suit exactement 1-2 et il n'y a aucune lacune entre ces deux feuillets.

Geroagoko gutun batean Dogsonек Vinsonek arrazoï zuela onartu zuen (1908 : 793-794). Argi dago, bada, zein garrantzitsu den plegu eta zeinaduren sistema liburu baten eraketan, urte askotako liburuetan batez ere, urteak joan urteak etorri orrialdeak galdu eta bestelakoak pasatuak direnetan.

3.2. Edizioez

Ez dugu 1636.eko edizio posible horren alerik ezagutzen; are, 1666.eko edizioan “Bigarren aldiari Inprimatua” dakar. Guk uste dugu datu hau aintzat hartzekoa dela, bere aipamenik inork egiten ez badu ere.

Argi dago 1666. urtean (30 urte besterik ez dira igaro 1636.az geroztik) jakin egin behar zuela Ioanes Desbaratz jaunak argitaratzear zuen liburu-

¹⁶ Artikulu honetan Leizarragaren aditz sistemaz mintzo den arren, amaieran leku egiten die *Eliçara erabiltceco liburu*a-ri buruzko hitzoi.

ruaren aurreko argitarapen eta berrargitarapenen berri. Are, edizio honen prestatzailea Aita Gazteluzar izan bazen, honek ere jakin egin behar izan zuen 1665.ekoa lehena hala bigarrena izan zen.

Itxuren arabera, bada, 1636.eko argitarapenaren kasuan, edizio fantasma baten aurrean izan gintezke. Hau da, obra eta edizio desberdinen aleak ditugu, baina ondorioztatu diren data eta tokia ez datoz bat ezagun ditugun edizioekin. Baldin eta edizio fantasma bat izan ez bada, Gilen Milangesek inprimatua da. Inprimatzailea ezezik, editorea ere izango zen, baina, *Manual*-aren lehen edizioan aipatu bezala, Etxeberrik berak ere egingo zituen bere ahaleginak edizio horretarako diru-laguntzak biltzen.

Kontuan hartzekoa da, gainera, Aita Lino Akesolok dioenez (1989 : 219),¹⁷ Bertrand Etxauz bai Enrike bai hurrengo errege Luis XIII.ak aholkulari eta erresumako erremusinari nagusi izendatu zutela, eta argi dago, gure ustez, bai Joanes Etxeberrik bai bere garaikideek Bertrاندengana jo beharko zutela diru bila beren liburuak argia ikusi ahal zezaten.

1665.eko edizioa I. Mongiron-Milangesenean dago inprimatua. Hau ere, gure ustez, inprimatzailearen beraren kargu.

1666.eko edizioa Paben, Joanes Desbaratzen moldiztegian dago inprimatua. Joanes Desbaratz, Pierrereren semea da eta 1655-1687 urte bitartean ihardun zuen inprimaketa lanetan. Edizio honen prestatzailea ez zen, haatik, bera izan; edo ez bera bakarrik, bederen.

Aipatua dugu edizio honen azken hamaika orrialdeetan datozen bertsoak Bernardo Gazteluzarrenak direla. Guk uste dugu Gazteluzar bertsoon egilea ezezik, edizioaren prestatzailea ere izan dela. Are, editorea ere izan zitekeelakoan gaude. Ez bera, baina bai berak ikasi zuen Pabeko jesuiten ikastetxea.

Etxeberri Ziburukoa bera ere bertan ikasia zen eta, egilearen izen ona eta liburuak izango zukeen arrakasta kontuan izanik, ez dugu uste ikastetxe honek liburu honen edizio berri bat argitaratzeko aukera galduko zuenik, Gazteluzar aurretik dela, jakina.

Edizioa, bestalde, oso jagona da eta aldaketa ugari ditu aurrekoarekin konparatuz, 1665.ekoarekin. Aldaketok «Calendarioaz edo demboren contuaz tratatua» atalean dira nabarmenen. Hona hemen 1665 eta 1666.ekoaren arteko desberdintasunik nabarmenenak :

¹⁷ Artikulu honen izenburua «Beltran de Etxauz-en 1584ko gutuna» da eta jatorria honako hau : *Karmel*, 1988-I, 5-7.

1665.eko edizioazioa

- 1.-«Mundua eguin cenac du 6833»
- 2.-«Vholde haundiac 3428»
- 3.-«Iefús Chriſto fórtu cenac 1645»
- 4.-«Iaquin nahi dut 1635. go vrthearen burullean, cembat garren egunean ičanen den illhargui berria.»
- 5.-«Nahi baducu bada iaquin, 1642. co. vrtheco marchoan noiz ičanen den illhargui berria,...»
- 6.-«Iaquin mahi duçu 1639. garren vrthean, Abendoan cembat garren egunean. ičanen den illgargui berria»
- 7.-«Iaquin eçagun bada aurthen, 1635.garren vrthean Aprillaren çortcian cembat daitequen illharguia çahar.»
- 8.-«Nahi baduçu iaquin 1635.garren vrthean, apherillaren hamaſſeian, illharguia, cein cenz çahar edo cembat egun cituen [...] Apherillaren beraz hamaſſei garrenean, illharguiac cituen haſſi cela, hogoi eta hamar egun, eta egun berrean illhargui berria haſſi cen.»
- 9.-«Ikhas çagun vrtheborean 1636. Apherillaren, çortci garrenean cembat eguin citu en illharguiac, [...] hamabi egun cituen Apherillaren çortcian illharguiac çahar cela.»

1666.eko edizioa

- «Mundua eguin cenac du 6863»
- «Vholde haundiac 3458»
- «Iefús Chriſto fórtu cenac 1666»
- «Iaquin nahi dut 1673co vrthearen burullean, cembat garren egunean ičanen den illhargui berria.»
- «Nahi baducu bada iaquin, 1680co. vrtheco marchoan noiz ičanen den illhargui berria,...»
- «Iaquin nahi duçu 1677 garren vrthean, Abendoan cembat garren egunean. ičanen den illhargui berria»
- «Iaquin eçagun bada aurthen, 1673 garren vrthean Aprillaren çortcian cembat daitequen illharguia çahar.»
- «Nahi baduçu iaquin 1673. garren vrthean, Apherillaren hamaſſeian, illharguia, cein ičanen den çahar edo cembat egun ičanen tu, [...] Apherillaren beraz hamaſſei garrenean, illharguiac ičanen tu, hogoi eta hamar egun, eta egun berean illhargui berria haſſi coda.»
- «Ikhas çagun vrtheborean 1673 Apherillaren çortci garrenean cbat eg ditusqueen illharguiac [...] hamabi egun ditusque Apherillaren çortcian illharguiac çahar ičanen dela.»

Ikus dezakegunez, bada, 1665.eko edizioan taulak baizik aldatu ez diren bitartean, 1666.ekoan taulak ezezik aurreko data mordoa ere aldatu egin da. Aldatu egin du edizioaren prestatzaileak, edizio urtea aldatze honek sortzen zituen aldaketak konponduz. Honexegatik diot edizio jagon baten aurrean gaudela.

1665.ekoan, tamalez, zentzurik ez duen zenbait kontu dago eta eskuizkribua edo 1636.eko agiango edizio hori bilatu artean ezin izango dugu jakin zer den Etxeberri Ziburukoak idatzia eta zer moldiztegitan gehitua edo aldatua.

Jarri dugun 8. adibidean «1635.garren vrthean, Apherillaren hamaſſeian, illharguia, cein cenz» dakar. Baina datuok ez datoz bat 7. adibideko «aurthen, 1635.garren vrthean Aprillaren çortcian cembat daitequeen illharguia çahar» hauekin. Are, 9. adibidean «vrtheborean, 1636. Apherillaren, çortci garrenean cembat egun citu en illharguiac» agertzen da eta azkenean ez dakigu zein den

aurtengo urte hori, 1635.a ala 1636.a. Badakigu, jakin, onespen datak 1635.ekoak direla eta 1635.a dela onartu beharko dugu.

Zer gertatzen da, bada ? 1665.eko edizioaren prestatzailea ere aldaketak egiten saiatu eta dena nahastu duela ? Jatorrizko testuan, eskuizkribuan, ere horrela zegoela eta Etxeberri bera nahastu zela ?

Bi edizioei dagokien datu kronologikoak direla eta, ¹⁸ izan dugu Euskaltzaindiak 1990. urtean argitaratu zuen Joanes Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren argitarapena eskuartearen erabiltzeko aukera, eta *Kalendrera*-ri dagokion atalean, 1.378. orrialdean honako datuok ditugu :

VRTHEN CONTVA

Munduaren creationetic diluuiorano.	1656 vrthe
Diluuiotic Moy/é/ganaino.	797
Moy/é/ganic Iefús Chri/fganano.	1514
Iefús Chri/fganic hunedrano.	1572
Munduaren ha/ĕtic honedrano.	5539

Datuok, haatik, ez datoz bat arestian J. Etxeberrikerak erakutsi dizkigunekin.

Desadostasun honek eraginda, jatorria zein izan zitekeen bilatzen hasi ginen. Horretarako, Bilboko Elizbarrutiko Gotzaintzak 1976.ean argitaratu zuen *Euskal-Biblia* hartu eta «Asiera» liburuan datozen datu kronologiko guztiak ordenatu eta zenbatu ondoren zera ediren genuen : Jangoikoak mundua sortu zuenetik Uholdera 1656 urte igaro zirela, J. Leizarragaren *Kalendrera*-n dugun urte kopuru bera. J. Etxeberrikerak erabilitako iturria zein izan zitekeen galdetu genion geure buruari eta zenbait adiskide jarri genituen

¹⁸ Agusti Chaho, esaterako, oso kezkatu azaltzen zen kronologia kontu hauen aurrean. Hona zer dioen P. Urkizuk (1991 : 358) : "Chahori kronologia arazoak beti kezka handia eman zion eta. adibidez. *Paroles d'un voyant* liburuan* zibilizazio ezberdinek hala noa, egipziarrek. txinarrek, indioek, arabek eta idazle zenbait, nola Diogene Laerziok, eta Diodoro Siziliarrak munduaren adinari buruz dituzten usteak agertzen dizkigu. Orogen ustetan lehen aintzinate honek 6100 bat urte inguru ukan zituen. Giristinoek, aldiz, bstela kontatzen zuten, esate baterako, Leizarragak bere *Kalendrera*-n (1571) hau izkribatzen du : Munduaren hastetik hunedrano 5539 urthe"

*"Les chroniques égyptiennes donnent 6128 ans, les chroniques chinoises 6100 ou 6157 ans, la chronologie indienne 6204 ans, Diogène Laërce compte 6138 ans et Diodore le Sicilien 6081 ans. La chronologie arabe donne pour l'Age primitive ou pour l'Age ancienne 6174 ans. (J. A. Chaho, *Paroles d'un voyant*, 2. arg., Paris, J. Laisné, 1839, 276-277)"

erantzunaren bidean. Hauetariko batek eman zigun erantzuna, irakurri zuen liburu batean aurkitu datu kronologikoak eskainiz. (Derragun, aurrera egin aurretik, eguneango Bibliak, oro har, latinez idatziriko *Vulgata* jarraitzen dutela eta honek jatorrizko hebraierazko Biblia. K. a.-ko II mende inguruan, ordea, LXXtarrek grekora itzuli zuten Biblia, berau *Alejandriako Biblia* ize- nez ezagutu izan delarik. Mendetan zehar, bi ereduak erabili izan dira.)

Liburu hau Wernerius Rolewinck-en *Fasciculus temporum* da. Gizon hau alemaniar monje kartuxaria izan zen, Wesfalian 1425.ean jaio eta Colonial 1502.ean hil zena. Liburua Colonial bertan inprimatu zuen Arnold Therhoernen-ek 1474.ean. Lortu ditugun fotokopiak 1993.ean Leongo Unibertsitateko Argitarapen Idazkaritzak eta Leongo Errege Kolegiatako San Isidoro Katedraren berrargitarapenekoak dira.

Hona zer dioen Rolewinck-ek 5. orrialdean :

Por otra parte, la postura de Orosio y de Beda se basa en los 3.184 años que, según los *Setenta*, discurrieron desde la creación del mundo hasta el nacimiento de Abraham. Sin embargo, los hebreos tienen 1236 años menos, ya que, de acuerdo con las Biblias corregidas según la doctrina hebrea, sólo 1948 años pasaron desde Adán hasta el nacimiento de Abraham. Los setenta intérpretes coinciden bastante con los hebreos, [f.1v] hasta la destrucción del templo, que recibe generalmente el nombre de destierro de Babilonia.

Los años siguientes no se conocen a partir de Escritura canónica, sino a partir de otras historias tanto de los judíos como de los gentiles. Y de nuevo en este punto hay diferencias, pero no muy grandes. Así pues, haciendo el cómputo, de acuerdo con Beda, desde la creación del mundo hasta el nacimiento de Cristo transcurren 5199 años, y esta es la postura universal de la Iglesia. Sólo falta uno para los cinco mil doscientos años.

5.199 urte hauei 1635 (*Eliçara erabiltceco liburua*-ren baimen eta onespenen urte datak) gehiturik, 6834 urte genituzke, eta Joanes Etxeberriek «Mundua eguin cenac du 6833» dio.¹⁹

¹⁹ Baimen eta onespen datak 1635.eko maiatzekoak dira. Beraz, argi dago Etxeberri 1634 urte inguruan hasiko zela liburu hau idazten, eta honela 6.833 urte hauek genituzke.

4. Hondar hitzak

Derragun, bukatu aurretik, eta *Eliçara erabiltceco liburuaren* lekukotasun desberdinei gagozkiola, zilegi dirudiela hiru lekukotasun desberdin behintzat izan direla aitortzea, tamalez, bi baizik ezin izan baditugu geureganatu ere. Izan ere, erakutsi denez, argi dago 1665. eta 1666.ekoak izan direla eskuartean erabili baititugu. Eta hirugarren bat ere hor legoke, hala erakusten baitute Pierquin de Gemblouxen aipamen bibliografikoak eta Julio Urkixok argitaratutako Joanes Etcheberri Sarakoaren eskuizkribuetan aipatutakoek, besteak beste.

1665.ean bi lekukotasun desberdin izan zitekeenekoaz, aldiz, aitortu dugu J. Vinsonek “*edition conforme à la précédente...*” jarri izan ez balu, bat bakarra izan dela uste izango genukeela, baina baieztapen horrek berorrek utzi gaitu zalantzatan.

Eskuartean erabili ahal izan ditugun bi lekukotasunen arteko erkaketa eta aldakien azterketak, bestalde, zera erakutsi digute, ezaba daitekeela batak bestea irakurri izanaren posibilitatea. Baita bakoitzak bere aldetik goragoko lekukotasun independienteak irakurri izana. Gure ustea, bada, biak goragoko bere irakurri duteneko da, hemen ere hirugarren lekukotasun horren aldeko froga berria dugularik.

Hirugarren ataleko bitxikeriei dagokienez, azkenik, zeinaduren kontuak argi erakutsi digu 1666.eko lekukotasuna bere osotasunean heldu zaigula.

Bibliografia

- ADELUNG, J. C.-VATER, J. S., 1806-1817, *Mithridates oder allgemeine Sprachkunde mit dem Vater Unser als Sprachprobe in bey nahe fünfhundert Sprachen und Mundarten*. Berlin, in der Vossischen Buchhandlung. Lau liburuki.
- AKESOLO, L., 1983, Bernard Gasteluçar. *Eguia catolicac salyamendu eternalaren eguiteco necesario direnac*. Edizio kritikoa. Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, Bilbao.
- , 1989, *Idazlan Guztiak*, Julen Urkizak prestatutako edizioa, Karmel Sorta I*, I**, I***, Larrea-Zornotza. ATUTXA, I., 1999, “Joannes Etcheberri Ziburukoa : Noelac eta testu kritika” *LAPURDUM IV. Les lettres basques au temps d’Axular (1600-1650). Euskal literatura Axularren aroan*, Actes du colloque de Bayonne (12-13 avril 1999), UMR 5478 du CNRS, Université Michel de Montaigne Bordeaux III, 233-312. or.
- , *Joanes Etcheberri Ziburukoa. Obraren berrirakurketa bibliografikoa eta testu kritika*, Doktorego tesia. Prestatzen.
- BLECUA, A., 1988 : *Manual de crítica textual*, Editorial Castalia.

- COLLINS, V., 1894, *Attempt at a Catalogue of The Library of the late Prince Louis-Lucien Bonaparte by Victor Collins*. Henry Sotheran & Co.
- DODGSON, E. S., 1907, "La Synopsis de Monsieur Dodgson", *RIEV*, I, 486. or.
- , 1908, "Eliçara erabiltececo liburua", *RIEV*, II, 793-794. or.
- ETCHEBERRI, J., 1645, *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Bordelen, Gvillen Milanges Erregueren Imprimatçaillea baithan.
- , 1665, *Eliçara erabiltececo liburua*, Bordelen, I. Mongiron Milanges Erregueren Imprimatçaillea baithan.
- , 1666, *Eliçara erabiltececo liburua*, Bigarren aldian Imprimatua, Paven, Ioannes Desbaratz Erregueren Imprimatçaillea Baithan.
- EUSKALTZAINDIA, 1989, *L.L. Bonaparte. Eskui:kribuak-Argitarapenak, Katalogoak*, Azkue Biblioteka.
- FRANCIQUE-MICHEL, F., 1847, *Proverbes basques d'Oihenart*.
- HUMBOLDT, W., 1817, "Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache". in *Mithridates*, 277-360. or.
- IRIGARAY, A., 1958, "Euskal literaturaren bilduma laburra. Joanes Etcheberry (circa 600)". *Egan*, 27-30. or.
- LACOMBE, G., 1927, "Julien Vinson". *Gure Herria*, VII.
- LAFITTE, P., 1974, "Bernard Gazteluzar olerkaria (1619-1701) (Segida)", *Gure Herria*, XLVI, 161-176. or.
- LAKARRA, J.A., 1988, "Testukritikaz : I. Stemmarantz", *Hiztegiak eta testuak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 101-139. or.
- LEIZARRAGA, I., 1990, *Jesus Christ gure launaren Testamentu Berria, Kalendreru, ABC*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- MOLL, J., 1979, "Problemas bibliográficos del libro español en el Siglo de Oro", *Boletín de la Real Academia Española*, Torno LIX-Cuaderno CCXVI, Enero-Abril 1979, 49-107. or.
- PIERQUIN DE GEMBOUX, C. Ch., 1858a, *Histoire Littéraire, philologique et bibliographique des patois*, Paris, Auguste Aubry, Libraire éditeur (nouvelle édition).
- , 1858b, *Bibliographie basque. Hommage à son altesse Le Prince Louis-Lucien Bonaparte*.
- URKIZU, P., 1991, "Agosti Chahoren hiztegia", *ASJU*, Gehigarriak XIV, 349-361. or.
- ROLEWINCK, W., 1993, *Fasciculus Temporum*, Universidad de León-Secretariado de Publicaciones eta Cátedra de San Isidoro de la Colegiata de León. León.
- URQUIJO, J., 1907a, *Las obras bascongadas del doctor labortano Joanes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas por Julio de Urquijo*, París, Geuthner.
- VINSON, J., 1891, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Paris, 1891, *Suppléments et compléments*, Paris, 1898, Colección Bibliográfica, Serie Mayor I* y I** (respectivamente), Caja Ahorros Vizcaína.
- , 1908, "Une dodgsonnerie", *RIEV*, II, 670-671. or.